

299. alea - 2024ko urria  
Debako herri aldizkaria

Zuh<sup>er</sup>tza  
www.deba.euskararekartera

# Berriketan



GOAZ ANTZERKI TALDEA

## Mende erdi euskal antzerki amateurra hauspotzen

**Berriketan .eus**

parte hartu  
parte izan

**adats**

**ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA**  
Hondartza kalea 13 DEBA  
T. 943 19 27 00

[www.facebook.com/adatsileak](https://www.facebook.com/adatsileak)  
@adatsileak

**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

Halal harategia  
Fruta-denda / Supermerkatua

**Razan**

943 574 710 / 688 749 337  
Sokagin, 2 behe. DEBA

**Urlo**

Aholkularitza  
Komunitateen  
kudeaketa  
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • [urlo@urloasesoria.eus](mailto:urlo@urloasesoria.eus)  
Sokagin, 2 behe. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA

*janire & maitane*  
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

**Zumardi**

pentsioa

Tel.: 688 800 619  
[info@pensionzumardi.com](mailto:info@pensionzumardi.com)  
[www.pensionzumardi.com](http://www.pensionzumardi.com)

**ARENA BAR**

**IZERBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**ORAIN**

ileapaindegia

943 19 21 09  
Hondartza kalea, 2  
Deba

**LAMARIANO**  
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
943 19 12 52

Odontologoa  
MAITENA ARRIZABALAGA

HORTZ KLINIKA

Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz

Odontologoa  
NORA UNZETABARRENEXEA

**mm**

943 830 424 - 653 921 712

**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportajeak,  
photoshop-eko erretokeak...)

[andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)  
Tel: 685 703 843



## AURKIBIDEA



# BERRIKETAN 299

2024ko urria

Azaleko irudiaren egilea:  
Erredakzioa



**8 ERREPORTAJEA**  
Urtebeteren ostean, Arbil Elkarte Sozialeko zuzendaritzak gogotsu jarraitzen du lanean



**10 ERREPORTAJEA**  
Goaz Antzerki Taldeak urrezko ezteiak ospatzeko egitaraua aurkeztu berri du



**23 ELKARRIKETA**  
Elkarlanean kaleratu dituzten ipuinez mintzo dira Maitane Unanue eta Mirari Alkorta



**28 ALBISTEAK**  
Kultur agendan pisu berezia izango du Deban lehen aldiz antolatatu den Arimen Gauak



**31 ALBISTEAK**  
Portugalen eta Katalunian ateratako argazkiek irabazi dute udako argazki lehiaketa



**32 AGENDA**  
Datozen asteotan egingo diren jarduerak eta ekimenak jaso ditugu atal honetan

**Zuhatzza** euskara  
elkartea

**Berriketan**

**ARGITARATZAILEA**  
Zuhatzza Euskara Elkartea  
**HELBIDEA**  
Ifar kalea, 12 behea. 20820 (Deba)  
**TELEFONOAK**  
943 19 13 83 / 632 04 33 22  
**HEDABIDEAREN E-MAILA**  
berriketan@zuhatzza.com  
**ELKARTEAREN E-MAILA**  
koordinatzailea@zuhatzza.com  
**ERREDAKZIOA**  
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta  
eta Alex Turrillas  
**KOORDINATZAILEA**  
Izaro Aulestiarte

**PUBLIZITATEA**  
Joseba Escudero eta Alex Turrillas  
**LOGOTIPOAREN DISEINUA**  
Iñaki Elosua  
**MAKETAZIOA**  
Maku Oruezabal  
**TIRADA**  
1.400 ale  
**MAIZTASUNA**  
Hilabetekaria  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)  
**LEGE GORDAILUA**  
SS/246/2009  
ISSN: 2171-7656

**LAGUNTZAILEAK**



DEBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

**Oharra:**

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatzza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

# Gutunak



## 80 urte igaro dira Jose Mari Irusta Melk-eko kontzentrazio esparruan erail zutenetik



Orain bost urte *Stolperstein* bat jarri zuten Jose Mari Irusta Mugarzaren omenez Lersundi kalean, nazismoaren izugarrikeriak gogorarazteko. *Stolperstein* hitzak "estropezu egiteko harria" esan nahi du alemanez, eta horrelako oroigarriek ibiltariaren

arreta erakarri nahi dute; 1933tik 1945era bitartean kontzentrazio esparruetan nazionalsozialistek erbesteratutako eta eraildako milioika pertsona banan-banan oroitzea dute helburu.

Harria 10x10x10 zentimetroko porlanezko kubo bat da eta goialdean letoizko plaka bat darama; oroitzen den pertsonaren datuak agertzen dira bertan.

Helburua honakoa da: bidean harria hautematean, pertsona geldirik geratzea eta makurtzea, plakan idatzita dagoena irakurtzeko. Agur edo erreberentzia hori oroitzen den pertsonarenganako errespetu-keinu baten parekoa izan liteke.

*Stolperstein* harria eraildakoaren jaiotetxearen, azken bizilekuaren edo lantokiaren aurrean jartzen da. Eta Lersundi kalean ezarritako harriaren ondoko etxean jaio eta bizi izan zen, hain justu, Jose Mari Irusta (Deba, 1908-11-17, Melk 1944-11-13).

Gunter Demnig artista alemaniarraren proiektua da *Stolperstein*; halako hainbat harri daude Euskal Herrian eta milaka 20 herrialdetan baino gehiagotan.

Jose Luis Albizu eta Xabi Laka

## Euskeraz Bagera egitasmorako proposamenak bildu nahi ditugu



Euskara ardatz hartuta, laugarren aldiz egingo da aurten Euskeraz Bagera, Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan. Aisialdiaz euskaraz gozatu ahal izateko eta herritarren artean harreman sare berriak eraiki ahal izateko erronkari helduta antolatuko da,

beste behin ere, egitasmoa. Zuhatza Euskara Elkarteak eta herriko hainbat taldek elkarlanean antolatutako egitaraua azaroaren erdialdean abiatu eta abenduko lehenengo astera arte luzatuko da eta, ekintza eta data guztiak zehaztuta ez badaude ere, askotariko jarduerak aurreikusten dira programazioan.

Egitarauaren hasierako zirriborro bat osatzen hasi bagara ere, herriko talde, eragile eta norbanako guztiak gonbidatu nahiko genituzke beren proposamenak egin eta ekimenean parte hartzera. Ekarpenean bat egin nahi dutenek azaroaren 10era arteko epea izango dute horretarako; 688 84 03 08 telefono zenbakian edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbidean jar daitezke harremanetan gurekin.

Euskeraz Bagera egitasmo talde eragileak





MATTIN URBIETA

## Bi hankako erlikiak

Instagram ezabatu dut mugikorretik, eta Twitter-ekin (nahi duena esango du James Bond-en pelikuletako bilauak, baina "X" berak soilik deitzen dio) gauza bera egitekotan naiz. Esku bateko hatzekin konta ditzaket Instagram-en jarraitzen ditudan kontuak, literalki. Eta hala ere, konturatu naizenerako algoritmo zikin horrek jositako amaraunean jausi naiz, euli ziztrin bat bainintz, geldi-geldi pantailari begira nire denbora zurruputzen duen bitartean. Mugikorrak berak diost zenbat denbora igaro dudan erretinak erretzen.

1987an merkaturatu ziren lehenengo aldiz 3,5 hazbeteko eta 1,44 megabyte-ko disketeak. Bi urte beranduago, 1989. urtean, World Wide Web (www), *Internet* deritzogun hori, sortu zen CERNen informazio eta datuak era eraginkorrean kudeatu ahal izateko.

35 urte beranduago disketeak teknologia zaharkitua dira, erlikiak: gazteenok agian ez duzue jakingo ordenagailuko *GORDE* ikurraren jatorria disketeak direla.

Internet, aldiz... Internetek gizartea goitik behera eraldatu du, eta *adimen artifiziala* bide beretik doa. Testu *hau* idatz nezake ChatGPT erabiliz segundo gutxi batzuetan. Nik, aldiz, ordu batzuk inbertitu ditut. Bai, gure lanak azkarrago egiteko balia ditzakegu tresnok, baina zertarako? Irabazitako denborarekin zer egin algoritmoak erabaki dezan?

Dena adimen artifizialaren esku utziz gero, ez al goaz munduko denbora guztia duten, baina ezer egiteko gai ez diren erlikia ezdeusak bilakatzeko bidean? Asko dugu gizarte gisa hausnartu eta erabakitze, eta gero eta denbora gutxiago.

**"Disketeak teknologia zaharkitua dira, erlikiak: gazteenok agian ez duzue jakingo ordenagailuko *GORDE* ikurraren jatorria disketeak direla"**



ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

**ZERBITZUAK:**

- \* Fisioterapia - Osteopatia
- \* Podologia
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista

Leisundi, 14
943 19 24 42
sasoiiko@hotmail.com



Ostolaza Kalea 25.  
20820 **DEBA** (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



## 'Diciembre': harria eta ikatza

1920ko hamarkadako argazki honetan *Diciembre* lurruntzia ikus dezakegu, kai ondoko arrapalan ikatza deskargatzen ari dela; atzealdean, berriz, Urasandi etxe ezaguna dago. Kabotaje-ontzi txiki hori Debako itsasadarrean eraiki zuten, gerora Plásticos Reiner enpresa izango zen lekuan kokatutako ontziolan, eta Asturiasko ikatza inportatzeko eta Debako harria (Arronamendiko harrobian egindako galtzada-harriak) esportatzeko erabiltzen zuten batez ere.

Datu bitxi gisa, Deban 46 kargaontzi porturatu ziren 1914an: horietatik 30 lurruntziak ziren, eta 16 belaontziak. Debako portuan ikatza deskargatu zuen azken ontzia, ziurrenik, *Condor* izango zen; 1960. edo 1961. urteen inguruan izan zen eta Gijondik zetorren. 1950eko hamarkadan jaio ginenok oraindik ere gogoan dugu *Condor* deskarga lanetan, irudian *Diciembre* ikusten den lekuan. Ekartzen zuen ikatz-zamaren zati bat inguruko herrietara zihoan trenean kargatzen zuten, eta bestea kaian bertan zegoen egurrezko biltegi txiki batean gordetzen zen, herrian saltzeko.

Alex Turrillas Aranzeta



**ASKETA, S.L.**  
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



ENRIKE IZAGIRRE

## 'Esana bat eta izana bi'

Anaia baten aita hil da. Itxura segail eta dotoreko bezain gizon barrutik zuzena ezagutu dugu urte askoan. Ekintzailea, lanaren ahaleaginean seguru eraikitako pertsona. Orain gutxi irakurri dut: "Gauza bat gizakia izatea da, eta beste bat Sokrates izatea. Sokrates gizaki bat da, baina gizaki izateko era bakar eta berezia". Bete-beteen zegozkion hitzok.

Maiz ez dakizu buruak zergatik eguneratzen dizun aspaldiko konturen bat. Zutabe honetara eserita, batzuetan gure amak atera ohi zuen *esana bat eta izana bi* huraxe ekarri dit akordura. Gaurkoa, berriz, errazago asmatu dut: tradizioa aztertzea ere ikasgai denez, zeu izango zara, Juan Jose, esaera horrek egoki emango ez liokeen gizakietako bat. Ez, ez zenuen hain justu Sokrates izan nahi, baina bizitzarekin topo egitera beldurrik gabe jalgi zinenetik, faltsukeriak doikuntza eskasa izan zezakeen zure izapidean.

Lehen, gosari orduan, Zalburdin erromesak, badakizu; gaua tren-geltokiko aterpetxean emandakoak. *Neuk ere ospitalero egiten diat*, azaldu zenidan behin. Norbere trenbidea lurrari tinko eusteko, beharrezkoak juzkatzen ditut hurkoaren trenbide-trabes guztiak, *ospitalero egiten* diguten denak. Santiago bidea ibili izanaren oroitzapen aberatsa daukat, baina ibilbide osoa zeuk amaitu duzu orain. "Kitatzen zütiet orai oro / banua San Jakeserat", dio antzinako kantu zaharrak. Nekez liteke musika bezain ondra-intsentsu sarkor eta esanguratsurik.

**"Ez zenuen hain justu Sokrates izan nahi, baina bizitzarekin topo egitera beldurrik gabe jalgi zinenetik, faltsukeriak doikuntza eskasa izan zezakeen zure izapidean"**

**Informatika**  
Tresneria  
informatikoa



**Elektronika**  
Osagai  
elektronikoak

**Informatika JLC Elektronika**  
Maxpe kalea, 7 - beheña | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)



**atari**  
INMOBILIARIA

943 19 22 63  
[atari@atarideba.com](mailto:atari@atarideba.com)  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)



**ieraenea**  
ekidea

"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA  
Tel: 943 53 95 20- E-mail: [ieraeneda@gmail.com](mailto:ieraeneda@gmail.com)



**marruecos**  
viajes y tours

Neurrira egindako  
bidaia Marokora  
**607 76 11 46**  
[www.viajesytoursmarruecos.com](http://www.viajesytoursmarruecos.com)

# Lehendabiziko urtean egindako lanarekin "pozik" agertu da Arbileko zuzendaritza



Realeko jokalaria ohiek mahai-ingurua egin zuten urriaren 17an. JOXERRA LARRAÑAGA

Zuzendaritza batzordean egindako lehen urtea errepasatzerakoan, Arbil Elkarte Sozialeko kideek azken hilabeteotan antolatu dituzten jarduerak nabarmendu dituzte, eta "irakurketa positiboa" egin dute. "Lan handia" egin duten arren, jendeak erantzun polita eman duela eta taldearen balorazio orokorra ona dela azpimarratu dute.

Are gehiago, ekintzetan herritar ugariak parte hartu dutela eta guztietan "giro ona" izan dela gaineratu dute. Jakinarazi dutenez, egin dituzten jarduerak askotan "lekurik gabe" geratu dira eta, aukera izan dutenean, itxarotzerrendak zabaldu eta bigarren saio bat antolatu behar izan dute. Horren adibide da, besteak beste, iazko Gabonen bueltan egindako sukaldaritza tailerra; "arrakasta handia" izan zuen eta, hitzordu bakarria egin ordez, azkenean hiru

saio antolatu behar izan zituztela diote zuzendaritza batzordeko kideek. Orain arteko ibilbidea, dena den, laguntzaile sareari esker gauzatu ahal izan dutela nabarmendu dute, esker onez. Eta sare horretako kide izateko interesa dutenei 631 90 99 60 zenbakira deitzeko eskatu diete.

## Antzeko plangintza

Aurreko ikasturtean antolatu zituzten jarduerak izan zuten harrera ona ikusita, oraingoan ere antzeko plangintzarekin jarraitzea erabaki dute; hilabetero gutxienez irteera bat, hitzaldi bat eta ibilaldi bat egitea da zuzendaritza batzordearen asmoa.

Zehaztu dutenez, antolatuko dituzten ekintza gehienak ostegunetan izango dira. Izan ere, elkarteko kideek beste hainbat jarduerak egiten dituzte gainontzeko egunetan. Astelehen,

Urtebete igaro da Arbil Elkarte Sozialaren zuzendaritza batzorde berria eratu zenetik eta elkarteko arduradunak gustura daude hilabeteotan martxan jarri dituzten egitasmo guztiekin. Azaldu dutenez, orain arte antolatutako jarduerak harrera ona izan dute eta, hortaz, bide beretik jarraituko dute abian den ikasturtean ere. Hilero, gutxienez, irteera bat, hitzaldi bat eta ibilaldi bat antolatzeko asmoa dutela adierazi dute. Aldaketarik ezean, hitzorduak ostegunetan izango dira.

asteazken eta ostiraletan, esate baterako, kiroldegira joaten dira, eta astearteetan dantza latinoen saioak izaten dituzte. Horiek horrela, datozen hilabeteotan antolatuko diren ekintza guztiak ostegunetan egitea erabaki dute.

## Urriaz geroztik martxan

Udako atsedenaldiaren ostean, abian da elkarte sozialak 2024-2025 ikasturterako osatu duen programazioa. Urriaren 10ean egindako ibilaldia izan zen

**Askotariko jarduerak antolatuko dituzte datozen hilabeteotan; ekintza gehienak ostegunetan egingo dituzte**





Ezkerrean, Gasteizera egindako irteera. Eskuinean, sukaldaritza tailerra (goian) eta inauterietako txokolate jana (behean). JOXERRA LARRAÑAGA

ikasturteko lehen jarduera, eta bertan parte hartu zuten hamalau lagunek Deba-Olatz-Mutriku-Deba ibilbidea egin zuten oinez; azaroaren 14an izango da hurrengo hitzordua.

Urriaren 17an, berriz, futbolaren bueltako *Deba eta Erreal*a mahai-ingurua izan zen Kultur Elkartean, Realaren lehen taldean aritutako Asier Riesgo, David Zurutuza, Inaxio Kortabarria eta Markel Bergararekin; Debarekin lotura estua dute guztiak ere.

Azaroaren 7an, *Etorkezuneko ikuspegia gure esperientziatik* mahai-ingurua izango da Arantxa Tapia Jaurlaritzako sailburu ohiarekin eta Iñigo Ucin MCCko lehendakari ohiarekin. Hurrengo hitzorduak ere lotuta dituztela aurreratu dute eta, azpimarratu dutenez, "ahalegin berezia" egiten ari dira publikoaren intereseko gaiei buruzko saioak antolatuzko.

Ikasturteko lehen txangoa, aldiz, urriaren 24an egin zuten. Erriberri eta Artaxoa inguruan ibili ziren egun-pasa.

#### Osasunarekin lotutako saioak

Bestelako jarduerak ere jarraipena izango dute aurrerantzean. Martxan daude, adibidez, joste eta puntu tailerrak. Aldi berean, hainbat informatika ikastaro emango dira, KZgunearekin elkarlanean.

Halaber, osasunarekin lotutako saioak ere antolatuko dituzte. Aurreratu dutenez, Osakidetza profesionalarekin lankidetzan, hainbat gairi buruz jarduteko aukera izango dute herritarrek.

Bestalde, igandero kina saioa egiten dute (17:30ean). "Aspaldian jende gutxi etortzen da eta aztertu beharko dugu saioak antolatzen jarraitzea merezi duen; oraingoz, jarraipena abendura arte dago ziurtatuta", zehaztu dute.

## Gabon sasoiko sortak kuota ordainduta duten bazkideen artean zozkatuko dituztela ohartarazi dute

Urtero legez, jai egun berezi bazuk (Santo Tomas, Inauteriak, San Antonio Eguna...) ere ospatuko dituzte eta Gabon sasoiaren sorta bereziak zozkatuko dituzte. Nolanahi ere, sorta horiek bazkide kuota ordaindu dutenen artean zozkatuko dituztela ohartarazi dute; lanak "errazte aldera", kuota helbideratzea gomendatu dute.

Zalantzak argitzeko, honakoa da elkartearen bulegoko ordutegia: astelehenetan eta asteazkenetan, 11:00etatik 12:30era.

# Bost hamarkadako ibilbidea, eta oraindik taula gainean

Goaz Antzerki Taldeak mende Erdiko ibilbidea borobilduko du aurten eta urrezko ezteiak ospatzeko egitaraua aurkeztu berri du (ekimen gehienak azaroaren 11tik 16ra bitarte izango dira). Orain arte egindakoaz eta egungo egoeraz hausnartzeko aprobeztatu dugu urtemuga; garaia eta egiteko moduak aldatu egin dira, baina Goazek bidea egiten jarraitzen du, hasierako helburuei eutsita betiere.



Karlos Larramendi eta Amaia Arotzena *Goaz-kideak*.

**G**oaz Antzerki Taldea 1974ko udazkenean sortu zen. Garai hartan Deban indartsu zebilen Gazteen Elkarteari zor dio bere jaiotza, eta Iñaki Lete zenari bere izena.

Euskarazko antzerkia egiteko gogoz zeuden gazte batzuek ilusioz ekin zioten lanari, eta urte haietan etorri berria zen Lukax Dorronsorok hartu zituen bere gain zuzendarilanak. "Lukaxek proposamena onartu zuen eta orduan hasi ziren bilerak egiten eta abar. Tartean ziren, sorreran, Mila Idiakez, Gillermo Urkiza, Martin Idiakez, Kurutz Sorazu... Gero, taldera batzeko jendea bilatzea izan zen kontua", oroitzen du Karlos Larramendik. 1979az geroztik da *Goaz-kide*; antzezle lanetan ere ibili zen hasieran, baina argiztapenaz arduratzen da azken urte luzeotan, eta antolakuntzako kide ere bada.

Taldea sortu eta hilabete gutxira, 1975ean, lehenbiziko antzezlanak aurkeztu zuen Goazek (Piarres Larzabalen *Senperen gertatua*). Zerrenda luze baten hasiera baino ez zen izan, ordea, harrezkero 30 antzezlan taularatu baititu, gaur-gaurkoz, bere ibilbidean.

Atzera begira jarri eta orain arteko egindakoaz hitz egitean, hasierako ezaugarriak eta helburuei eutsi dietela uste du Larramendik. "Helburua antzerkia egitea zen, baina euskara bultzatzea ere bai. Euskara makal zegoen Deban, eta hizkuntza suspertzeko zerbait egin behar



Goazek 1988an taularatutako 'Kanpotarrak maisu' antzezlan. Argazkian: Lukax Dorronsoro, Inazio Larramendi eta Olatz Oiarzabal.

zen. Bestalde, taldea finkatu zenean, argi ikusi genuen amateurrek izango ginela. Guretzat, amateurra izatea herriko talde bat izatea da, printzipioz eta jarreraz, eta oso garrantzitsua iruditzen zaigu; bestela, gutako asko aspalditik profesional mundura pasata egongo ginateke... Urteetan izan genuen eztabaida hori, baina apustua mantendu egin dugu".

Iritzi berekoa da Amaia Arotzena. 15 urterekin hasi zen antzerkian, Gozatuz ikastaroan, eta hiruzpalau urte beranduago (2019an) batu zen Goazera. Ordundik, taldeko antzezlea, antolakuntzako kidea eta diruzaina ere bada. "Antzerki amateurren aldeko borroka presente dago gaur egun ere taldean, bai. Askok lantzen dugu gaia, batez ere presentzia galdu duela ikusten dugulako; udalek, elkarteek... profesionalak bilatzen dituzte beti. Dena dela, mugimendua egon badago hemendik kanpo ere. Lezon izango gara laister antzerki talde amateurren jardunaldietan eta duela gutxi Elgetan ere egon ginen, antzerki talde amateurren txapelketan", aipatu du.

Antzerki amateurra, herrigintza, elkarlana. Hiru kontzeptuak sarri mahaigaineratu dituzte taldekideek, Goazen jardunaz hausnartzean. "Herriko beste edozein elkarte edo eragilek laguntza behar badu, taldea beti dago laguntzeko prest. Gure ekintzak egiteaz gain, besteen egitarauetan ere parte hartzen saiatzen gara beti. Estatutuetan ere hala daukagu jasota".

### Mugarriak

Bost hamarkadako ibilbidean hainbat mugarri izan ditu Goazek. Garrantzitsuenen artean daude, nola ez, Antzerki Asteak. 1986an antolatuta zuten lehenengoa, eta ordutik euskal antzerkiaren erakusleho eta erreferentzietako bat da. Ehunka konpainia (amateurrek nagusiki, baina

**1986an antolatuta zuten lehenengo Antzerki Astea, eta ordutik euskal antzerkiaren erakusleho eta erreferentzietako bat da**

Argazki zaharren bilduma:  
[labur.eus/goazargazkizaharrak](http://labur.eus/goazargazkizaharrak)





Begoña Mendizabal eta Josu Iriondo 'Gernika' obraren emanaldian, 1981ean.

## "Taldetik 120 bat lagun pasa gara guztira... Eta batzuetan 23 kide izan gara, eta lau baino ez beste batzuetan"

profesionalak ere tartean) eta beste hainbeste obra pasa dira Debatik. "37. edizioa izan dugu aurten, ez da broma!", dio Larramendik.

Ezin aipatu gabe laga, bestalde, bidean egin dituzten omenaldiak ere: Alfonso Sastre, Tene Mujika, Piarres Larzabal, Manuel Lekuona, Antonio Maria Labaien, Nemesio Etxaniz, Marzelino Soroa, Peli Markiegi eta Martin Idiakez ageri dira zerrendan. Halaber, Goazen "oso garrantzitsuak" izan diren Luis Mari Agirrezabalak eta *Txotxe*-k (Joxe Martin Urrutia) ere jaso dute Goazen aitortza.

Taldearen historian aro ezberdinak eta "gorabehera handiak" izan dira. Garaiak aldatu dira eta egiteko moduak ere bai. Aldaketak

## "Orain arte antzerkia beti egin izan dugu idatzitako obrekin, eta orain sormenetik goaz. Nire ustez, hori da azken urteotako aldaketa garrantzitsuenetako bat"

egon dira osieran, antolatzeke moduan, antzerkigintza ulertzeko eran, agertokietan, programazioan... eta, nahitaez, unean uneko egoerara egokituz eta eguneratuz joan dira.

"Taldetik 120 bat lagun pasa gara guztira... Eta batzuetan 23 kide izan gara, eta lau baino ez beste batzuetan", dio Larramendik. Bestelako egoera eta ezbehar batzuk tarteko, "Goaz hiltzorian egon izan dela" ere erantsi du. Baina, zailtasunak zailtasun, lortu dute aurrera egitea eta azken urteotan indartu egin da taldea.

Horretan eragina izan dute, adibidez, Gozatz programaren baitako ikastaroek eta Erika Olaizola aktore eta zuzendariaren gidaritzapean egindako jarduerak. "Erika lau urtez izan dugu zuzendari eta oso urte garrantzitsuak izan dira taldearentzat, birsortze bat egon delako", laburbildu du Arotzenak. "Baina, aldi berean, bideari guk bakarrik jarraitu behar geniola ere ikusi genuen. Orain ez daukagu zuzendari rol hori jokatzeko duen inor, baina ideala litzateke zeregin hori taldeko norbaitek bere gain hartzea. Gure ustez, beharrezkoa da obra bat aurrera ateratzeko orduan erabakiak hartuko dituen norbait egotea taldean. Inportantea da lidergo hori egotea, modu horizontalean bada ere".

### Erronkak

Bestelako erronkarik ere badute. Lehen urteak udalak lagatako bi lokaletan (egun ambulategia eta Hiru Uhinak hotela dauden tokian) eta Josu Iriondoren aroztegian egin zituen Goazek, eta espazio propioa erosi zuen gero Osion. Pauso garrantzitsua izan zen, baina emanaldiak bertan egin ahal izateko "mugak" ditu aretoak: "Ez da espazio egokia, ez da irisgarria, txikia da... Gainera, mantentze gastu handiak ditugu eta diru hori lortu beharra dago urtero. Beharrezkoa

## "Beharrezkoa da herriko talde guztientzat areto eta azpiegitura egokiak izatea. Hori ere bada gure betiko borroka eta erronketako bat"

da herriko talde guztientzat areto eta azpiegitura egokiak izatea. Hori ere bada gure betiko borroka eta erronketako bat".

Uneotan 11-12 lagun dabilta taldean, antolakuntzan edota eskuen artean duten antzezlanean parte hartzen. Iaz estreinatutako *Lotura basatiak* obraren emanaldiekin jarraitzen dute, eta urtarrean beste sorkuntza lan bati ekitekotan direla aurreratu dute. Ezin esan, hortaz, geldiduenik, kontuan hartuta urtero Antzerki Astea eta bi urtean behin Fokupean festibala ere antolatzen dutela.

### Aurrera begira

Aurrera jarraitzeko, baina, erreleboa hartuko duen jende gaztea ere beharko lukete. "Gazte dezente dabilta antzerkian, baina nerabezeroan laga egiten dute. Egia da konpromisoa hartu behar dela, baina ondo pasatzen dugu taldean. Eta, bestalde, Goazen parte hartzeko modu asko daude, aktore lanak egin gabe ere; horren adibide garbia da Karlos", aipatu du Arotzenak.

Baikor ikusten dute etorkizuna. Larramendiren esanetan, "orain arte antzerkia beti egin izan dugu idatzitako obrekin, eta orain sormenetik goaz. Nire ustez, hori da azken urteotako aldaketa garrantzitsuenetako bat. Erronka handia da, baina bide horretatik ondo joanez gero, Goazek beste 150 urtean bizirik jarraituko duela iruditzen zait". Ildo beretik mintzatu da Arotzena: "Deban kristoren indarra dago, sortzaile pila bat daude gauzak egiteko prest. Hurrengo 50 urteetan Goaz bizirik egongo den? Ba ez dakit, baina beste 10 urtean bai behintzat".

Behin honaino iritsita... urrezko ezteiak ospatzeko prest daude taldekideak. Azaroaren 11tik 16ra bitarteko egitaraua iragarri dute (ikusgai duzue agendaren atalean).



Josu Iriondo eta Inazio Larramendi 'Eun Dukat' obran, 1994an.



1997an taularatutako 'Geure buruari kuku' antzezlanaren argazkia: Dorleta Lazarobaster, Luis Mari Agirrezabala eta Arritxu Iriondo.



Eider Zulaika, Joseba Escudero eta Iraia Agirrezabala 'Adanen poema amaigabea' lanaren emanaldian, 2004an, Zubeltzun.

~~h a r i a n~~

# Indar kontutan parez pare





## **KARMELE GISASOLA HERRI KIROLARIA ETA XABI OSA ATLETA EGOKITUA**

**Mallabiko Zelai landetxean batu ditugu Karmele Gisasola Zenikazelaia eta Xabi Osa Mendes herri-kirolez eta crossfitaz berba egiteko. Ez zuten hasiera errazik izan biek bietara ere, baina biek ezagutu dute loria nork berean, eta gaur erreferente dira askorentzat.**

Testua: Ainara Argoitia

Argazkiak: Asier Orbea

Elkarrizketa osoaren bideoa ikusgai eskualdeko tokiko komunikabideen webguneetan

**ARGITARATZAILEAK**

**ek!**

Eibarko...eta kitto!  
Euskara Elkarteko  
hedabidea

**dkT**


Debabarreneko  
Komunikazio  
Taldea

**E**uria ari du goian behean Mallabian, eta zelaitarrek etxe ondoan duten harritokian babestu gara solaserako. Metro koadro gutxiko espazioan dozenaka harri daude ertzetan pilatuta, eta hiruzpalau txaleko zintzilik. Lanerako tokia da. Bi leiho luzexkek zelaira ematen dute, eta etxeako behiak ikus daitezke larrean, hausnarrean. Barruan bestelako hausnarra darabilte gure bi protagonistek, parez pare jarrita.

**Emakumea izateagatik edo gorputz normatiboa ez izateagatik, ezberdinak zineten askoren begietara plazan agertu zinetenean. Nola oroitzen dituzue hasiera haiek?**

**Karmele G.:** Beti kontatzen dut aitik hogei urte egin zituela plazarik plaza eta ez zuela emakume batekin partekatu plazarik, urte askotan ehun erakustalditik gora egin zituen arren. Hori oso gogorra da. Esan beharra daukat Miren Urkiola hasita zegoela harri-jasotzen, baina entzuten ziren komentarioak ere ez ziren beti onak. Ezohiko zerbait zen emakume bat ikustea indar kontutan. Gure etxean, neba eta lehengusua hiruzpalau bat urterekin hasi ziren plazan aizkoran eta harri-jasotzen, baina nik 17 urterekin egin nuen saltoa, lehengusinarekin. Aitak animatu gintuen trontzan hastera. Ordura arte beti izan nintzen traketsa kirolerako; beti izan nituen behar baino kilo gehiago. Gimnasia beti nintzen azkena gelditzen zena eta urte askoan pentsatu nuen ez nuela kirolerako balio, harik eta gustukoa topatu nuen arte.

**Xabi O.:** Gustuko duguna topatu eta orduak sartu behar dira; eta ez nabarmentzeko, baizik eta erakusteko geure buruei gai garela eta lortu dezakegula nahi duguna. Begira, ni hondoa jota eta gauza oso negatiboetan pentsatzen nengoen ispilu aurrean jarri eta buruak klik egin zidanean. 'Edo aldatzen duzu zerbait edo batek daki zer gertatu daitekeen hemen', pentsatu nuen. Asko sufritu nuen umetan. Lotsa sentitzen nuen nire gorputzaz eta ez nuen nahi izaten kalera irteterik, ez neukalako besteen begiradei aurre egiteko gogorik. Irain asko egiten zizkidaten eta beti saiatzen nintzen besoa ezkututzen. Zorionez esan dezaket lagunek eta etxekeok asko lagundu nindutela. Lagunek sekula ez zidaten galdetu ea bizikletan ibili nintekeen. 'Xabi, goazen bizikletan ibiltzera', esaten zidaten, baina askotan komentario negatiboek eragin



handiagoa izaten dute. Egoera horretan neure bertsiorik onena zein izango zen imajinatzen hasi nintzen, eta Xabi indartsu batekin amets egin nuen, fisikoa zelako besteek ni baztertzeko arrazoia. Garai zailak izan ziren. Ohitura txarrak hartuta neuzkan. Jan ere edozer egiten nuen lokalera jaisten nintzenean, baina ispilu aurrean jarri nintzen gau hartan bertan entsalada afaldu nuen eta hurrengo egunean korrika egitera irten nintzen. Hor hasi zen aldaketa, eta kirolak erakutsi zidan gauza batzuk egiteko zailagoa izan nezakeen arren, nire gorputza ez zela oztopo ezertarako. Gero, Ameriketako Estatu Batuetara joan eta kirolarekin obsesionatzera ere iritsi nintzen. Eta jabetu nintzen nire buruarekiko neukan ikuspuntua ez zela aldatu. Erabaki nuen ez nintzela entrenatuko gorputz jakin bat izateko, baizik eta indartsu sentitzeko. Strongman egiten hasi nintzen [herri kirolen bertsio amerikarra] eta esango nuke hainbeste jende ezberdin ikustek engantxatu egin ninduela.





**"Xabi indartsu batekin amets egin nuen, fisikoa zelako besteek ni baztertzeke arrazoia"**

**"Kirolak erakutsi zidan gauza batzuk egiteko zailagoa izan nezakeela, baina nire gorputza ez zela oztopo ezertarako"**

**"AEBetara joan eta kirolarekin obsesionatzera ere iritsi nintzen, eta jabetu nintzen nire buruarekiko neukan ikuspuntua ez zela aldatu"**

XABI OSA

**Adinez zaharragoa izan arren, etxeko mutilak baino dezentez geroago hasi zinen plazan eta etxekoek zerabilten ezizena hartu barik. Denontzat da desiragarri norbere izen-abizenez deitzea, baina zuenean Zelai goitzenak bazuen entzute bat. Kontzienteki baztertu zenuen?**

K.G.: Ez. Lehen, euskaldunek normalean baserri izena hartzen zuten ezizentzat. Gurean, aitak, bi anaietan zaharrenak, Zelai hartu zuen; osabak, Zelai II.a; lehengusu Ioritzek Zelai III.a, eta gure nebak, Zelai IV.a. Akordatzan naiz Ermuko Santixau jaietan denok irten ginela plazara. Aurkeztu zituen esatariak gure etxeko gizonezkoak izen-abizenez eta Zelai ezizenez, gauza bera egin zuen gero Bihurri aita-seeekin, eta nire txanda iritsita, esan zuen: 'Eta Iparraldeko jokoetan, Karmele Gisasola'. Ni ez nintzen ohartu ere egin; hala zen. Bukatu zen erakustaldia eta etorri zitzaidan aurkezlea esanez pena hartu zuela etxeko guztiak Zelaitartzat aurkeztuta eta ni izen-abizenez. Lasai egoteko erantzun nion, ni jolasean ari nintzela-eta. Baina iritsi zen eguna nire nebak eta lehengusuak baino erakustaldi gehiago egiten nituela, txapelketa gehiago jokatzeko nituela eta orduan esan nien etxeko mutilei aldatu egin behar genuela. Dena den, herri-kiroletan esango nuke ez dagoela ezizena duen beste emakumerik.

**Nola hasi zineten crossfiten?**

X.O.: Ameriketara ezagutu nuen crossfita, baina han oso garestia zen, eta Euskal Herrira itzuli eta gerora hasi nintzen. Hona etorri nintzenean strongman egiten jarraitu nuen hasieran, baina ez nuen topatzen leku aproposik stronggeko ariketak egiteko crossfiten eman nuen izena.

K.G.: Akordatzan naiz Xabik [Osa] 2019an Anboto Crossfit zabaldu zuenean, ikusten nituela ikaskide izandako batzuk crossfitera joaten eta erabaki nuen izena ematea, harri-jasotzen aitarekin ibili arren, ez neukalako maisurik esateko sentadillak eta bestelakoak zelan egin behar ziren zuzen. Harria jasotzen ikusten dugunean norbait pentsatzen dugu indar handia izan behar duela derrigor, baina hemen dena ez da indarra. Da indarra, da teknika, da gure nortasuna eta da hauspoa. Harriak ere ezberdinak dira, eta harria jasotzeko moduak ere bai. Niri oso lagungarria egin zitzaidan crossfita, indarra egiteko. Jendeak uste du oso kaltegarria dela, baina gezurra da. Lesionatu izan banaiz, ez da

crossfitagatik izan; baizik eta, batzuetan, kontrakoagatik, ez joateagatik.

## Harri-jasotzaileen etxean nola hartu zuten crossfiten izena ematea?

**K.G.:** Hasieran ez nion ezer esan aitari. Probatzera joan nintzen. Mugikortasun handirik ez neukan eta gaur baino hamar kilo gehiago nintzen. 'Nora ostia etorri naiz!', pentsatzen nuen. Uste dut box batera sartzen garen guztiok lehenengo sentitzen duguna lotsa dela. Izerditan hasten nintzen ezertan hasi orduko, baina probatu nuen eta asko gustatu zitzaidan. Kezkatzen ninduen etxean nola esan. Izan ere, gure aitaren buruan sentadillak, pisu hilak eta karga hartzeak egitea zen entrenatzea, eta etxean bageneukan material guztia. Eta etxean entrenatzen ari ginen egun batean, aitak, harrituta moduan, bota zidan: 'Ene, indarra egin duzu!'. Orduantxe esan nion crossfiten hasi nintzela. Crossfita oso lagungarria izan zitzaidan bereziki pentatloia prestatzeko. Harri-jasotzen, gaur, ez dira sasoi bateko hamar minutuko txandak-eta egiten. Oso lan motzak izaten dira, baina pentatloian harri-jasotzen, txingetan, aizkoran eta korrika egin behar genuen eta lan luzeago baterako prestatzeko eta arnasa egiteko oso ondo etorri zitzaidan crossfit egitea.

## Gorputz normatiboak, kanon estetikoak... Erakartzen du crossfitak gero eta jende gehiago, baina errezelo batzuk sortu ere bai beste askorengan.

**X.O.:** Gertatu zait herri-kiroletan eta baita crossfiten ere. Etorri izan zaizkit emakumeak boxera, eta esan: nik ez dut gorputz gihartsu horiek izaterik nahi.

**K.G.:** Akordatzen naiz gimnasioan halterofilia egiten ari ginen batean nola esan zenigun lasai egoteko, barra bat jasotzearen ez ginela koadratuak jarriko-eta. Astean bi aldiz joanda ezinezkoa zela hori, baina indar ariketak egitea oso lagungarria izango zitzaigula gure eguneroko lanetarako. Beste hori ere bada. Niri gustatzen zaizkit emakume gorputz gihartsuak ere, baina jende askori oraindik zatarrak iruditzen zaizkio. Eta ulertu dezaket jende bati ez gustatzea, baina ulertu dezatela haiek beste batzuei gustatzen zaizkigula eta gainera ez dela ezer txarra.

**X.O.:** Bai, jakina. Ohartu behar gara gorputzen inguruko komentarioek min egin dezaketela. Dena



den, komentario horiek askotan etxekeoengandik etortzen dira, amengandik-eta, lehen ez zirelako halako emakume gorputzak ikusten. Iruditzen zait asko ari garela aurreratzen, gero eta neska gehiagok uste dutelako gorputz indartsua izatea osasungarria dela eta gainera erakargarri ere izan daitekeela. Crossfiten egiten ditugun ariketek eguneroko mugimenduetarako prestatzen dute gorputza. Sentadilla bat eseri eta altxatzea da bizitzan. Pisu hila jasotzea erosketa poltsak altxatzean egiten dugun mugimendua da, eta nik neuk behintzat hilkutxan sartzen nauten eguneraino nahi nuke erosketak jasotzeko gai izatea. Nire ustez crossfita izan behar da zerbait jendeari lagunduko diona. Ikusten dudana da, baina, jende asko gehiegi obsesionatzen dela.

**K.G.:** Esan eta esan ari zaizkigu, batez ere emakumeok indarra landu beharko genukeela menopausia aurreko urteetan. Egia da, baina, ni neu ere ez nagoela ohituta 50 urteko emakumeak gimnasia joaten ikusten. Baina indarra landuta osasuntsuago eta hobeto sentituko gara eta ariketa fisikoa taldean egiteak buruko karga arintzen ere lagunduko digu. Akordatzen naiz beste entrenatzaile batek ere nola esan zidan behin ariketa eszentrikoak eta gomekin egiten ziren ariketak txorradak zirela, baina ez da egia. Gauza asko landu daitezke eta edozeinek egin ditzake ariketa horiek.



**"Nora ostia etorri naiz!'",  
pentsatzen nuen. Uste dut  
box batera sartzen garen guztiok  
lehenengo sentitzen duguna lotsa  
dela. Izerditan hasten nintzen  
ezertan hasi orduko, baina  
probatu nuen eta asko gustatu  
zitzaidan"**

**"Ulertu dezaket jende bati  
ez gustatzea emakume gorputz  
gihartsuak, baina ulertu dezatela  
haiek beste batzuei gustatzen  
zaizkigula eta gainera ez dela  
ezer txarra"**

KARMELE GISASOLA

**Txapelketetan gero eta emakume gehiago  
ikusten dira, batean zein bestean.**

**X.O.:** Bai, eta bai herri-kiroletan eta bai crossfiten ere nik gehiago gozatzen dut emakumeak ikusten pisua altxatzen gizonak ikusten baino. Iruditzen zait aukerak falta izan dituztela, baina aukera eman zaienean erakusten ari direla oso gai direla indar kirolak egiteko.

**K.G.:** Bai, niretzako oso polita da, urte luzez ikusi bakoa izan delako eta erakutsi dugulako ikuskizun politak eskaini ditzakegula. Harri-jasotzen, emakumezkoetan, markarik handiena Idoia Etxeberriak dauka. Bi eskurekin 163 kiloko harria dauka altxatuta, eta esku bakarrarekin 118koa. 16 urterekin, Idoiak, 120 kiloko errektangularra jaso zuen. Iaz, Olaia Esnaolak, 16 urterekin, 125 kilokoa jaso zuen, eta aurten, Maddi Gesalagak berdindu egin du marka, baina 15 urterekin. Ni horrek izugarri poztzen nau.

**Nola entrenatzen zarete?**

**K.G.:** Gure aita, bere sasoiak, astean hiru bat aldiz Oizera igotzen zen etxetik hauspoa egitera, eta beste hiru bat aldiz Iruñeko gimnasio batera joaten zen urtarriletik martxora, indarra egiteko. Lurrean amaitzen zuela esaten du. Gertatzen dena da guk herri-kiroletan ez daukagula egutegirik. Nik urtarrilaren 1ean ez dut jakitzen zenbat txapelketa izango diren, gonbidatuko ote nauten, noiz izango diren eta ezer ez, eta beraz, ez dakit noiz egon behar naizen indarraldi betean denboraldian zehar. Eta denok dakigu ezin dela urte guztian egon sasoirik onenean.

**X.O.:** Horrek asko zailtzen du, bai. Kirolean, txapelketa asko izateak interferentziak sortzen ditu entrenamenduan. Niri lehiatzea ez zait asko gustatzen; gehiago gustatzen zait entrenatzea, nire buruaren kontra egitea... Urtean bi txapelketa jokatzeko ditut. Irailtik martxora arte karga lantzen dut, zure aitak egiten zuena. Astean sei egunez entrenatzen naiz, lauzpabost ordu egunean. Gogorra da, eta jakina, iristen da larunbata eta ez dut beste ezertarako gogorik izaten. Sakrifizio handia eskatzen du, bai gurea, kirolariona, eta baita ingurukoena ere, haiek ere ordaindu behar izaten dutelako, entrenatzen ez gauden denbora deskantsurako behar dugulako eta bete behar dugulako hori, ahal izanez gero jakina.

## **"Hori da ulertu behar duguna: irabaztea ez dagoela beti gure esku, beste baldintza batzuk ere sartzen direlako jokoan. Besteak ere hor daude, gainera, eta norberak dena emanda ere izan daitezke gehiago"**

KARMELE GISASOLA

Niri gertatzen zaidana da kirolari profesionala izan arren lan egin behar dudala bizitzeko, hemen babeslerik ezean ez dagoelako dirurik.

**K.G.:** Bai, ni ere berdin; biok dauzkagu gure negozioak, gure kirolek ezin delako bizi. Udan oso txarto egon naiz ni gerritik; ez nekien zer zen. Fisioterapeutarenera joaten nintzen, ipintzen ninduen ondo, baina entrenatzen hasi eta negarrez amaitzen nuen, minez. Inori ez dizkiot opa udan pasatu ditudan minak. Askotan gelditu naiz plazan ere azkeneko harria jaso ezinda, minaren minez, negarrez. Erakustaldia amaitu domeka iluntzez, deitu osteopataria urgentziaz zaindu nazan, hasi berriro, eta ezin. Hala, banan-banan deitu behar izan nien antolatzaile guztiei udako bi hilabeteetarako lotuta neuzkan erakustaldi guztietarako ezetza eman eta ordezkioak topatzeko.

### **Eta halakoetan nondik ateratzen da entrenatzeko indarra?**

**K.G.:** Hemen, harritikian, aita eta neu egoten gara bakarrik eta askotan motibazioa falta izaten zait entrenatzen hasteko. Eguraldi txarra egiten duenean, hilekoarekin nagoenean... dena txarra ikusten dudana egunetan oso gogorra egiten zait bakarrik aritzea. Baina talde batean izena ematen duzunean, burua behartuta sentitzen duzu joatera, aktibatzen zaituzte eta ingurukoek asko laguntzen dizute. Hori dauka crossfitak honek ez daukana, edo nik hemen ez daukadana, badirelako herri-kiroletan beste batzuk taldean entrenatzen direnak. Ni harritikian lehiatu egiten naiz eta ez nintzateke



kapaz beste lehiakide batekin batera entrenatzeko, joango nintzatekeelako nire onena ematera barik bera gainditzera. Ikasketa prozesu bat da hori ere, eta ikasi egin beharko nuke.

**X.O.:** Kirolari profesional bat naiz, mundu mailan lehiatzen dena, eta entrenatzaileak jartzen didan dena egin behar izaten dut Atik Zra.

### **Nola daramazue presioaren kontua?**

**X.O.:** Txapelketetan hasi nintzenean irabaztea besterik ez neukan buruan eta ikaragarri zaintzen eta prestatzen nintzen, baina iristen zen eguna eta erlojuan atzera kontaketa hasten zenean blokeatu egiten nintzen. Antsietateak hartzen ninduen, ahoa sikatzen zitzaidan eta ezin izaten nintzen zentratu egin beharreko mugimenduetan. Eta horregatik hasi nintzen kirol psikologo batera joaten. Iruditzen zait kirolari askori gertatzen zaigula: asko lantzen dugu gorputza, baina oso gutxi burua. Esango nuke jokatu ditudan lehenengo bi munduko txapelketetara ezin prestatuago iritsi nintzela, baina buruak huts egin zidala.

**K.G.:** Bai, buruko osasuna oso garrantzitsua da. Ondo zaudenean, ez duzu premiarik sentitzen, baina uste dut denok joan beharko ginatekeela halakotara. Azkeneko lau urteetako Euskal Herriko txapeliduna naiz ni harri-jasotzen, bosgarren txapela jokatu dut orain, eta irabazi egin nahi dut, baina lesio batetik



## "Iruditzen zait kirolari askori gertatzen zaigula: asko lantzen dugu gorputza, baina oso gutxi burua"

XABI OSA

nator eta horixe ari naiz bereziki lantzen. Neure buruari esaten diot ahal dudan guztia egingo dudala, baina ez dela ezer pasatzen azkena geratuta ere, neurea egiten badut. Baina teoria oso polita da, eta praktika, berriz, kaka bat.

**X.O.:** Niri ere asko kostatu zitzaidan, baina ikasi nuen. Lehen, asko inporta zitzaidan kanpoko jendeak nitaz pentsatzen zuenak, gertukoei huts egingo ote nien..., baina konturatu naiz maite nauen jendeak berdin-berdin maiteko nauela, izan txapeldun edo azken. Iazko txapelketarako entrenatu nintzen, baina ez dut uste aurrekoetako sasoi berean nengoenik, lesio batetik ere banentorrelako, baina guk gurea egin genuen, hirugarren gelditu ginen eta pozik, guretzako jardun ginelako eta ez beste jende hori gustura geratu zedin. Uste dut gehiegizko presioa jartzen diogula kirolariok geure buruei.

**K.G.:** Hori da ulertu behar duguna: irabaztea ez dagoela beti gure esku, beste baldintza batzuk ere sartzen direlako jokoan. Besteak ere hor daude, gainera, eta norberak dena emanda ere izan daitezke gehiago. Eta zoriondu behar ditugu, lehiakiderik gabe txapelketarik ere ez legokeelako.

### 'Ginen'. Plurala erabili duzu, lehiatu bakarka lehiatu zinenean, Xabi.

**X.O.:** Jakina, bakarka arituta ere, kirolari guztien atzean dagoelako talde bat. Gure ahulguneak hobetzen

ematen dugu guk denbora asko, nahi eta ezin horretan, eta frustrazio handiak sortzen ditu horrek, ingurukoek ordaintzen dituztenak. Horregatik nire lorpenez ari naizenean beti pluralean hitz egiten dut.

Karmele, askotan galdetu izan didaten galdera bat egin nahi dizut: zer jaten duen kirolari profesional batek, askotan jendeak uste duelako nik letxuga, brokolia eta oilasko bularra bakarrik jaten ditudala.

**K.G.:** Gure aitak, entrenatzera Oiz mendira igotzen zenean, bueltan ez zuen urik edaten, txarto ikusia zegoelako. Pedro Langa zen orduan bere entrenatzailea, Deban bizi zena, eta astero txuleta-zinta bat ekartzen zion, egunean razioko txuleta bat jan zezan. Eta nire aitaren marka batzuk ez ditu inork gainditu. Hamasei aldiz izan zen Euskal Herriko txapelduna eta hor daude bere markak, baina nik ikasi dudana da denetik jan behar dela, baina neurrian. Arazo bat badaukat, baina: oso-oso gozozalea naizela; etxetik datorkit.

**X.O.:** Nik ere azukre pixka bat behar dut otorduro. Galdetu dizut nik janariarekin arazoak izan nituelako. Eta ezagutu dut jendea beste kirol batzuetan ere janariarekin oso harreman ona izan ez duena. Nik uste izan nuen barazkiak eta arraina jan behar nituela bakarrik, nire gorputzak kanon baten barruan egon behar zuelako. Nutrizionistak zabaldu zizkidan begiak.

**K.G.:** Oso garrantzitsua iruditzen zaidan zerba it da benetan profesionalak direnen kontsultetara joatea. Eta buruko osasunarekin, berdin.

# Hiru egun hartuko dituzte Santa Zeziliaren bueltako emanaldiek



Hurbiltzen ari da Santa Zezilia, musikarien zaindariaren eguna, eta herriko talde ugari hasiak dira jada ospakizuna prestatzen. Urtero bezala, askotariko emanaldiak izango dira aukeran.

Musika Eskolako ikasleek emango diete hasiera aurtengo hitzorduei, eta kalejira "erraldoia" egiteko asmoa dutela aurreratu dute; azaroaren 21ean izango da, 16:30ean, Musika Eskolatik abiatuta.

Santa Zezilia Egunean bertan, azaroaren 22an, beste hainbat kalejira izango dira. Bandako kideek, adibidez, diana joko dute 07:00etan (Musika Eskolatik abiatuko dira).

Hutsik egin gabe irtengo dira, halaber, Kalez Kale txistulari taldeko kideak eta akordeoilaria; herriko kaleetan barna ariko dira 08:30etik aurrera. Iluntzean, berriz, Kalean Kantuzekoen emanaldia izango da; kalejira egingo dute 19:30ean, Musika Eskolatik abiatuta.

## Kontzertu berezia

Debako Musika Bandak Santa Zeziliaren omenezko kontzertu berezia ere emango du. Azaroaren 23an izango da hitzordua, 12:30ean, elizako klaustroan.

Egun berean, gainera, Aitzuri Abesbatzako kideak ere kantuan ariko dira. 13:30etik aurrera hainbat pieza abestuko dituzte.

## Musikaz eta umorez beteta datoz KulturEkin-en hurrengo hitzorduak



KulturEkin egitasmoaren baitan urte amaierara bitartean izango diren hitzorduen berri eman dute antolatzaileek.

Endoian bizi den Aitor Huergo abeslari eta musikariak lagun artean kaleratu duen *Ganbarako doinuak* bigarren lana aurkeztuko du azaroaren 29an, 20:00etan, Kultur Elkartean; Ianire Mate, Aitor Erkizia, Josu Salegi, Irati Majoral eta Adrian Larrañaga izango ditu ondoan oholztan.

Abenduaren 13an, aldiz, Idoia Asurmendi kantari eta konpositore aramaioarraren txanda izango da; kontzertu akustikoa emango du, 20:00etatik aurrera, Kultur Elkartean. Azkenik, abenduaren 28an, ordu eta leku berean, musika eta umorea uztartzen dituen *Lo canto todo* ikuskizuna izango da; bertan, iaz bezalaxe, Oscar Terol komiko eta sortzaile donostiarra ariko da bakarriketan.

Taxi Alain

Zure zerbitzurik onena



636 135 008 • [www.taxideba.eus](http://www.taxideba.eus)



MAIEDER

hortz klinika

Eider Sampayo  
Maialen Linazasoro

Implanteak eta kirurgia  
Periodontzia - Endodontzia  
Estetika eta zuriketak  
Protesiak - Odontopediatria  
Azido hialuronikoak  
Aho-aurrepegi eta ATM alterazioak

Zarautz

Kale Nagusia 9-1  
943 13 32 69  
722 81 56 60  
[dental@maieder.com](mailto:dental@maieder.com)  
[www.maieder.com](http://www.maieder.com)

# “Heriotza bat gertatu aurreko momentua kudeatzen laguntzeko tresna bat litzateke ipuina”

MIRARI ALKORTA LIZASO ETA MAITANE UNANUE GABIRONDO • Idazleak



Haur Hezkuntzako irakasleak dira Maitane Unanue lasturtarra eta auzo berean bizi den Mirari Alkorta billabonatarra. Ikasten ari zirela ezagutu zuten elkar eta, kezka eta interes asko partekatzen zituztela ikusita, gai horiek ipuinetan elkarrekin jorratzen hastea erabaki zuten. Bi album ilustratu kaleratu dituzte dagoeneko.

**E**lkarlanean argitaratutako lehen album ilustratuan abortuaren gaia landu ondoren, duela hilabete batzuk kaleratutako *Inoiz ez desagertzeko ipuina* bigarren libururako ere askorentzat mingotsa izan daitekeen gai bat aukeratu zuten Unanuek eta Alkortak: heriotzarekiko beldurra. Azaldu dutenez, haurrekin bizitzaren parte diren gertaerak "naturaltasunez" lantzeko tresna bihurtzea da bi lanen helburua.

**Badira hilabete batzuk bigarren album ilustratua plazaratu zenutela. Nolako harrera izan du?**

**Maitane Unanue:** Iazko urrian kaleratu genuen *Inoiz ez desagertzeko ipuina* eta guretzat oparia izan zen argitaratuta ikustea. Oso harrera polita izan du, positiboa. Dakigunez, iazko Gabonetan, etxe batean baino gehiagotan zuhaitz azpian jarri zuten oparia izan zen eta horrek ilusio berezia egin zigun. Are gehiago, poz handia eman zigun hainbatek gure kategorria ezagutzen zutela jakiteak.

**Bigarren lan hau ere Xabier Etxanizen ilustrazioekin jantzi duzue. Elkar ezagutzen zenuten lehenagotik, beraz. Nolakoa izan da sortze prozesua?**

**Mirari Alkorta:** Egia esan, oso erraza egin zaigu hasieratik Xabierekin lankidetzan aritzea eta talde bat osatzea. Lehenengo lanean, ikuspegi sistemikoan





**“Gai bat tabu bihurtzeko, isilpean izaten dugu, ezkutuan... baina joera hori aldatuz gero, ez litzateke tabu bat izango”**

**“Aurreko lanen ildo beretik jarraituz, bidean den hirugarren album ilustratua ere ikuspegi sistemikoan landuko dugu”**

kokatzea kostatu zitzaion gehienbat, eta, hitzei garrantzia emateaz gain, ikuspegi horri ere garrantzia eman nahi izan genion. Alegia, *Hirugarrena orduan* ipuinean agertzen den ilustrazio bakoitzari zer tamaina eman, zer lekutan kokatu... halako galdera edo zalantza asko sortu zitzaizkion. Gai horretan jantziago egonik eta gure gustuak hobeto ezagututa, elkarlana askoz errazagoa izan da oraingo honetan. Egia esan, altxor bat izan da halako ilustratzaile bat alboan izatea; oso ondo irudikatu ditu gure nahiak ilustrazioetan.

**Ikuspegi sistemikoa aipatu berri duzue. Hortaz, 'Inoiz ez desagertzeko ipuina' ere pedagogia sistemikoan oinarrituta dago, ezta?**

**M.A.:** Ikuspegi sistemikoa oso presente dugu gure egunerokoa; egoerak eta bestelako kontu batzuk ordenatzen eta beste modu batean ikusten laguntzen digu, baita gauzei zentzu bat bilatzen ere. Eta, nola ez, ipuin hau ere era sistemikoan lantzea erabaki genuen, bai. Azken finean, ikuspegi hau gure bizitzetan txertatzea opari bat izan da biontzat eta horixe eskaini nahi izan diogu irakurleari.

**Zer kontaktzen du liburuak?**

**M.A.:** Haurtzaroan beldur asko izaten ditugu eta horietako bat heriotzarekiko beldurra da. Izenburua *Inoiz ez desagertzeko ipuina* da eta, hain zuzen ere,

desagertze hori metafora gisa erabiliz, ipuina bera heriotzarekin lotu nahi izan dugu. Haur askok gehien maite dituzten horiek galtzeko edo momentu hori iristeko beldurra izaten dute batez ere, eta, heriotza hori gertatu aurreko momentua kudeatzen laguntzeko tresna bat litzateke ipuina. Hau da, angustia hori lasaitzeko, arintzeko, horri hitzak jartzeko, lekua emateko... ipuina da gurea.

**Eta zergatik heldu diozue gai horri?**

**M.U.:** Heriotza bati aurre egiteko lagungarri diren ipuin eta lan asko daude (agurra egiteko, dolua gainditzeko...), baina momentua iritsi aurretik bestelako lanketa bat egiteko beharra ere izaten dute askok, eta horretarako lagungarri diren oso lan gutxi zeudela konturatu ginen. Alegia, ume zein heldu ugari une horren beldur dira eta gertukoren bat, gurasoak, familiakoak edo maite duten jendea galduz gero, ez dute jakiten zer egin. Ipuin honekin behar horri erantzun bat eman eta tresnak eskaini nahi izan dizkiegu eta, batez ere, beldur horri behar duen lekua eman nahi izan diogu.

**Oro har, askorentzat "tabu" edo "ilunak" diren gaiak landu dituzue orain arteko ipuinetan. Beharrezkoa ikusi duzue haurrei gai horiei buruz hitz egitea?**

**M.A.:** Uste dut guk ematen diegula gaiei tabu izaera. Gai bat tabu bihurtzeko, isilpean izaten dugu, ezkutuan...





baina joera hori aldatuz gero, ez litzateke tabu bat izango. Beraz, orain arte tabu izan diren gai horiek azaleratzea eta plazaratzea da gure asmoa, baita horiei argia ematea ere.

**M.U.:** Haurrek, egia esan, berezkoa dute edozein gairi buruz hitz egiteko eta galdetzeko naturaltasuna. Hau da, heriotza edo desagertze baten aurrean, edota abortu bat dagoenean (aurreko ipuinean bezala), haurrek galderak egiten dituzte etengabe eta iruditzen zait gure eginkizunetako bat izan beharko litzatekeela galdera horiei erantzuna ematea eta bide ematea, tabu izatera irits ez daitezen. Hori izan da guk orain arte argitaratu ditugun bi lan hauekin lortu nahi izan duguna, hain zuzen. Ipuin ilustratu hauek sei, zazpi, zortzi urteko umeei zuzenduta daude, baina beti esaten dugu lau urtetik gorako edonorentzako liburu aproposak direla. Ipuin hauek norbaitek kontatu behar izaten ditu askotan eta, beraz, esan daiteke helduei ere gai hauei buruz hitz egiten laguntzen diegula. Askotan gu gara, helduok, gai horiei buruz hitz egiteko baimenik ematen ez dugunak eta gai horiek ezkututzen ahalegintzen garenak. Azken finean, ipuina aitzakia polita eta aberatsa da lehen ezkutuan zeuden gai horietaz aritzeko; hori guztia lantzeko tresna baliagarria izan daitekeela nabarmenduko nuke.

### **Aurreko lana benetako gertaera batean oinarrituta zegoen. 'Inoiz ez desagertzeko ipuina' ere bai?**

**M.A.:** Bai, azken hau ere bai. Lau urte nituenean sentitu nituen beldur haiei leku emateko aukera izan dut ipuin honekin; barrenak husteko modu bat izan da niretzat. Urte hauetan guztietan gaia lantzen aritu naiz, baina ez lan honetan bezain modu kontzientean. Era pertsonalean zein paper gainean barruak husteko egindako ariketa hori garatuagoa eta osatuagoa geratu da gero ilustrazioekin. Gainera, emaitza jendearen eskura jartzeak gaia beste ikuspuntu batetik jorratzeko eta bizipen horiek kanporatzeko aukera eman dit.

### **Erronka berririk bai esku artean?**

**M.U.:** Hirugarren proiektu batean ari gara lanean; hitzak eta ilustrazioak uztartzen gabiltza, beste behin ere, Xabirekin elkarlanean. Egia esan, ipuinak idaztera animatu ginenean, gai batzuk jorratu nahi izan genituen. Buruan genituen gaietako bik argia ikusi dute jada eta martxan dagoen lan horrek ere hasierahasieratik jorratu nahi izan dugun beste gaietako bati helduko dio. Pil-pilean dagoen kontu bat hizpide hartuta onduko dugu ipuina, eta emaitza plazaratzeko gogotsu gaude. Aurreko lanen ildo beretik jarraituz, bidean den hirugarren album ilustratua ere ikuspegi sistemikoan landuko dugu.

# Eguzki-energia eskura

EGUZKI-ENERGIA ITURRI BERRIZTAGARRI NAGUSIENETAKO BAT DA

Eguzki-energiak eta energia-iturri berriztagarriek funtsezko zeregina betetzen dute klima-aldaketaren aurkako borrokan eta energia-sistema iraunkorrago baterako trantsizioan. Eguzki-plakek, bereziki, bilakaera teknologiko nabarmena izan dute, eta efizienteagoak eta eskuragarriagoak bihurtu dira, bai etxerako, bai industriarako. Horri esker, pertsona eta erakunde askok murriztu egin dute sare elektriko tradizionalekiko mendekotasuna, eta, hala, murriztu egin dituzte haien energia-kostuak eta karbono-aztarna.

Testuinguru horretan, gero eta ohikoagoak dira eguzki-energiaren funtzionamenduari, haren onurei, kostuei eta instalazioaren bideragarritasunari buruzko galderak. Hona horietako batzuk:

## Zenbat energia sor dezake eguzki-plaken instalazio batek?

Energia-kantitatea sistemaren tamainaren, kokapenaren, panelen inklinazioaren eta instalazioak jasotzen duen eguzki-argi kantitatearen araberakoa da. 1 kW-ko eguzki-panel tipiko batek Euskal Autonomia Erkidegoan 950 eta 1.400 kilowatt orduko (kWh) artean sor ditzake urtean, kokatuta dagoen eskualdearen arabera.



Plaka-fotovoltaikoak Itziarko Kanala jatetxean. DKT

## Zer alde dago energia fotovoltaikoaren eta termikoaren artean?

Eguzkiaren energia baliatzeko sistema nagusiak bi dira: fotovoltaikoa eta termikoa. Lehenengo sistemak eguzki-plaken bitartez eguzkiaren energia fotovoltaikoa jasotzen du eta elektrizitate bihurtzen. Bigarren sistemak, berriz, urez beteta dauden hodi batzuen bitartez, eguzkiaren energia termikoa (beroa) jasotzen du eta energia horrek ura berotzen du eta kasu batzuetan lurruna

sortuz, turbina bat mugitu eta elektrizitatea sortu ere bai.

## Eguzki-energia erabil daiteke gauean edo lainotuta dagoenean?

Eguzki-plakek eguzki-argi zuzena behar dute elektrizitatea sortzeko. Hala ere, energia biltegitratzeko sistemek, bateriek adibidez, egunean zehar sortutako elektrizitatea gauez edo egun lainotsuetan erabiltzeko biltegitratzea ahalbidetzen dute.

## Zenbat denborako balio-bizitza dute eguzki-plakek?

Eguzki-plaken balio-bizitza 25 eta 30 urte bitartekoa da. Denbora horretan zehar, elektrizitatea sortzeko gaitasuna apur bat murriztu daiteke, baina modu eraginkorrean funtzionatzen jarraitu ohi dute.

## EGUZKI-PLAKEN BALIO-BIZITZA ERAGINKORRA 25 ETA 30 URTE BITARTEKOA DA

# "Energiaren %20a eskuratzen dugu eguzki-plaketatik"

**ALBERTO SANCHEZ ETA MARIAN GARCIA** KANALA JATETXEA

Duela bi hilabete, plaka-fotovoltaikoak ezarri dituzte Itziarko Kanala jatetxean. Guztira, 38 plaka ezarri dituzte, teilatuaren alde bietan.

## **Zein izan da arrazoia eguzki-plakak ezartzeko?**

Jatetxean argindar asko kontsumitzen dugu, batez ere, labeetan eta garbiketara lerroan. Duela hilabete batzuk, Ukrainan gerra hasi ostean, faktura handiak iritsi zitzaizkigun, bai argindarrarenak eta baita gasarenak ere. Orduan, jarri ginen pentsatzen lehenago edo beranduago bilatu beharko genuela energia iturri berriztagarriren bat. Eta horretan geundela, iritsi zitzaigun proposamena Debegesa bitartez. Hainbat sistema aztertu eta gero, aerotermia, geotermia eta abar, ikusi genuen eguzki-plakak inbertsioa ez zela horrenbestekoa eta gainera bazirela laguntzak Europako Next Generation programaren eskutik. Hori ikusita, erabaki genuen aurrera egitea.

## **Zenbatekoa izan da inbertsioa?**

24.000 euro ingurukoa. Laguntzetatik, berriz, 5.000 euro inguru jasoko ditugu eta aurreikusten duguna da zazpi bat urtean inbertsioa amortizatuta izatea eta hamar urtetik aurrera irabaziren bat izatea. Izan ere, momentu batzuetan, argindar soberakina sortzen da eta soberakin hori argindar sare orokorrera saltzen dugu, gure kasuan, Iberdrolaren

bitartez. Hortik ere diru kopuru bat jasoko dugu baina hori oraindik ez dakigu zenbat izango den zehazki, prezioa negoziatu barik daukagu eta.

## **Nolako izan da prozesua?**

Enpresa batekin jarri ginen harremanetan eta beraiek egin

Momentu honetan, 38 eguzki-plaka (15.64 kWp) eta haiei esker, jatetxean kontsumitzen dugun argindarraren %20a eskuratzen dugu. Sukaldeko kamarek eta elektrogailu gehienek plaketatik datorren indarrarekin funtzionatzen dute.



Alberto Sanchez eta Marian Garcia Kanala jatetxeko arduradunak. DKT

ziguten estudio guztia, kalkulatu zuten zenbateko aurrezpena lortuko genuen eta abar. Ondoren, instalazioa ere eurek egin dute. Adibidez, guk, kontsumo handia daukagunez ez dugu akumulatorerik eta halakorik ezarri behar izan, plakek sortzen duten guztia kontsumitzen dugulako.

## **Momentu honetan, zenbat indar eskuratzen duzue plaka-fotovoltaikoetatik?**

"EGUZKI-PLAKEN INBERTSIOA EZ DA HORRENBESTEKOA ETA BADIRA LAGUNTZAK"

## **Zein balorazio egiten duzue?**

Oso ona. Alderdi ekonomikoaz gain, guk nahi dugu kontsumitzen dugun energia berriztagarria izatea, ingurumenari ahalik eta inpakturik txikiena eragiteko. Gustura gaude eman dugun pausoarekin.



**Energia  
bulego birtuala**

*energia.debegesa.eus*  
*agenda2030@debegesa.eus*  
*943 82 01 10.*



# Arimen Gaua ospatzeko egitarau bateratua prestatu dute estreinakoz



Udazkeneko kultur agendan protagonismo berezia izango du aurten, lehen aldiz, Deban Arimen Gaua ospatzeko antolatutako egitarau bateratuak. Urriaren 13an abiatu ziren jarduerak eta azaroaren 1ean amaituko dira; tartean ipuin kontaketa saio berezia, mozorroen burukoak eta apaingarrien tailerrak, film emanaldiak, *Death kafea* edota Beldurraren Etxea izango dira aukerak. Festara batzeko deia egin dute antolatzaileek.

Arimen Gaua iragartzeko zabaldu duten bideoa: [labur.eus/arimengauabideoa](https://labur.eus/arimengauabideoa)



**U**rriaren 31ren bueltan Euskal Herriko ohituretan oinarrituta egiten den ospakizuna da Arimen Gaua edo Gau Beltza. Kanpotik etorritako ereduak (Halloween jaia, adibidez) alde batera lagata, tokiko errealitatera egokitutako egitasmoek eta ospakizunek indarra hartu dute azken urteotan. Eta, ohitura zaharrak berreskuratuz batzuetan, eta jaia berrasmatuz bestetan, gure inguruan gero eta herri gehiagotan udazkeneko egun ilunetako jaiak antolatzen hasi dira.

Udalerrri horien zerrendara batu da aurten Deba. Herriko norbanako eta eragile ugari indarrak batu dituzte elkarlanean lehen aldiz ospatuko den Arimen Gaueko egitarau bateratua osatzeko. "Euskara, komunitatea, parte-hartzea, natura, berdintasuna, aniztasuna eta izaera" bezalako baloreak oinarri hartuta, adin ezberdineko herritarrei zuzendutako ekintzak antolatu dituzte. Hortaz, festara batzeko eta jardueretan parte hartzeko deia egin dute sustatzaileek, "herriak herriarentzat egindako" egitasmoa dela nabarmenduta.

## Ekimen nagusia urriaren 31n

Egitarauak 11 egun hartzen ditu guztira; urriaren 13an Debako Kontalariek Agirre jauregian egindako saio bereziarekin eman zitzaizkien hasiera ekimenei, eta azken hitzordua azaroaren 1erako aurreikusita dago.

Antolatzaileek azaldu bezala, ekimen nagusia urriaren 31n egingo dute eta, aurreratu dutenez, "danbor hotsak, musika, inprobisazioak, dantzak, beldurren erretzea eta beste hainbat sorpresa" egongo dira egun horretan. Nolanahi ere, egun horretarako prestaketa lanak abian daude jadanik.



## HURRENGO HITZORDUAK

### URRIAK 25 (OSTIRALA)

#### ESKULANEN TAILERRA

17:00 Gaztelekua.

### URRIAK 29 (ASTEARTEA)

#### MOZORROEN BURUKOEN ETA APAINGARRIEN TAILERRA

18:00 Kultur Elkarteko liburutegia.

### URRIAK 30 (ASTEAZKENA)

#### BELDURRAREN ETXEA

16:30 Gaztelekua.

### URRIAK 31 (OSTEGUNA)

#### KALE APAINKETA

16:15 Kalejirak egingo duen ibilbidea apaintzeko deialdia.

#### MAKILLAJE TAILERRA

17:00 Zuhatza-Kolore Anitzen eskutik. Simon Berasaluze plaza.

#### 18:45etik aurrera:

#### ARIMA GAZTEEN KALEJIRA

Banda Gaztearen eskutik. Ibilbidea: Simon Berasaluze plaza, Itur kalea, Plaza Zaharra, Ostolaza kalea eta Kultur Elkarteko plaza.

#### ARIMA GAZTEEN DANTZALDIA

Kulunkaren eskutik. Plaza Zaharra.

#### BELDURREN ERRETZEA

Debako Kontalarien laguntzarekin. Kultur Elkarteko plaza.

#### ARIMEN ABESTIA

Kalean Kantuzen laguntzarekin. Kultur Elkarteko plaza.

#### 20:00etatik aurrera:

#### ARIMEN IBILBIDEA

Jarei Debatukadaren eskutik. Ibilbidea: Amillagako hilerria, Ifar kalea, Plaza Zaharra, Ostolaza kalea eta Kultur Elkarteko plaza.

#### AXURI BELTZAREN DANTZA

Gure Kai eta Kalez Kaleren eskutik.

#### KONTAKIZUNAREN IRAKURKETA

Plaza Zaharra.

#### ARIMEN DANTZALDIA

Debako Musika Banda eta Kulunkaren eskutik. Plaza Zaharra.

#### IBILBIDEAREN AMAIERA

Ekimenaren amaiera ekitaldia. Arimen abestia Kalean Kantuzen laguntzarekin. Kultur Elkarteko plaza.

### AZAROAK 1 (OSTIRALA)

#### BELDURREZKO FILM EMANALDIA

17:00 Gaztelekua.

Izan ere, mozorroen burukoen eta apaingarrien tailerrak antolatu dituzte. Urriaren 17an eta 21ean egin zituzten lehenbiziko bi saioak, eta hilaren 29rako antolatu dute hirugarrena. Tailerretan, ahal den neurrian, birziklatutako materiala erabili ahal izateko, material biketari ere ekin diote. Luzaro ikastetxean izarak, trapuak eta gortina zaharrak biltzen ari dira egunotan; eta material berdina (kristalezko pote gardenekin eta sokekin batera) Arbil Elkarte Sozialera ere eraman daiteke (10:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara bitartean).

Bestalde, urriaren 20an haurrentzako film emanaldia izan zen. Gaztelekuan sukaldaritza saioa (urriaren 23an), eskulansen tailerra (hilaren 25ean), Beldurraren Etxea (hilaren 30ean) eta beldurrezko film baten emanaldia (azaroaren 1ean) izango dira aukeran. Eta, besteak beste, *Death kafea* egingo dute Kultur Elkarteko liburutegian, Manex Beristainen eskutik.

#### Ekimena iragartzeko bideoa

Arimen Gaua iragartzeko bideo labur bat prestatu eta zabaldu dute egunotan antolatzaileek. Halaber, [gaubeltza.eus](http://gaubeltza.eus) webgunean ere ikusgai daude mozorroa, makillajea edo apaingarriak prestatzeko bideoak.



# 175 bat postu izango dira auzolanean antolatutako XXIX. Itziarko Perian



Arg.: ITZIARKO AUZO UDALA



Azaroaren leian ospatzen den Itziarko Peria egutegian gorriz markatutako hitzordu berezia da askorentzat. Eta, antolatzaileen esanetan, "egitarau borobila" izango du aurtengoak ere; 29. feria izango da.

Itziarko Peria Elkartek eta Itziarko Auzo Udalak antolatutako feriak 09:00etatik 14:00etara irekiko ditu atek eta, aurreko urteetan bezala, bertan askotariko produktuak erosteko aukera izango dute bisitariek. 175 postu inguru jarriko dituzte industrialdeko eremuan eta baserrietako produktuak, artisau lanak, arropak eta bestelakoak izango dira aukeran. "Aurten artisau postu gehiago izango dira, bertako produktuen aldeko apustua indartu egin baitugu", nabarmendu dute antolatzaileek. Aurreratu dutenez, gainera, Gipuzkoako lau makineria etxeren eskaintza "zabala" izango da ikusgai.

Beste urte batez, bisitariek hainbat animalia mota ikusteko aukera izango dute. Gainera, Aiako Indate Berri baserriko abere bitxien erakusketa izango da, baita Lasturko Gailur zalditegiko zaldien erakusketa ere. Halaber, Euskal Herriko VII. sasi ardi txapelketa

eta sari banaketa egingo dute feriaren eremuan, eta Gipuzkoako VI. ahuntz azpi-gorrien txapelketa ere bai.

Iazko bide beretik, herri-kirolen erakustaldia hartuko du gero Zabalsoro frontoiak; aizkora eta harri-jasotze norgehiagokak eta iparraldeko jokoen erakustaldia izango dira (doan) 18:00etan.

## Erromeria giroan

Bestalde, berritasunik ere izango da aurten. Feria eguna ostirala izanik, hain zuzen, auzolanean antolatutako ospakizuna beste batzuetan baino gehiago luzatuko dela aurreratu dute. Afaria eta erromeria izango dira Hostalean, Imanol Intxausti eta Iñaki Larrañaga trikitilariekin. Erreserba egiteko jatetxera (943 19 90 06 - 943 19 90 08) deitu beharko dute herritarrek.

Ohi bezala, Itziarrera gerturatzeko garraio publikoa erabiltzeko erraztasunak izango dira aurten ere. Autobusak izango dira Debatik eta Zumaiatik, eta Txitzarroko aparkalekuan ibilgailuak lagatzeko lekua egongo da; feriara joateko doako autobus zerbitzua eskainiko dute.



TAXI LIZENTZIA  
**SALGAI**

Eibar | Erretiroagatik

**682 289 446**

**Diru-sarrera ziurtatu  
eta frogagarriak**

**Bezero-zorroa**

Irudiko autoa lizentziarekin  
batera salduko da



# Mattin Urbietak eta Itsaso Aramendik irabazi dute 'Berriketan'-ek antolatutako udako argazki lehiaketa

Portugalen eta Katalunian ateratako argazkiek irabazi dute *Berriketan*-ek lehenbizikoz antolatu duen udako argazkien lehiaketa.

Herri komunikabideak osatutako epaimahaiaren sari nagusia Mattin Urbietak eskuratu du, uda sasoiaren Madeiran (Portugal) ateratako irudiarekin; Yurrita arrain kontserben produktu sorta jaso du, baita herriko ekoizle edota sortzaileen lanekin osatutako saskitxoare.

Publikoaren saria, berriz, Itsaso Aramendirentzat izan da; herritarrek lehiaren egon diren argazki guztien artean gustukoena hautatzeko aukera izan dute eta Altafullan (Katalunia) ateratako argazkia nagusitu da Interneteko bozketan. 322 boto eman dituzte herritarrek, eta 48 boto jaso ditu Aramendiren irudiak. Boto horiei esker, Yurrita arrain kontserben produktu sorta bat irabazi du egileak.

Irailaren 11n abiatu zen lehiaketa eta irailaren 30era artekoa izan da argazkiak bidaltzeko epea. 15 herritarrek hartu dute parte ekimenean, eta munduko hainbat herrialdetan ateratako 61 argazki aurkeztu dituzte orotara (bakoitzak bost bidal zitzaizkeen gehienez); Deban bertan egindako irudi ugari izan dira tartean.

*Berriketan*-ek eskerrak eman dizkie modu batean zein bestean lehiaketan parte hartu duten guzti-guztiei.



Udako argazki lehiaketako sari nagusia. MATTIN URBIETA



Publikoaren saria. ITSASO ARAMENDI

# Urria / Azaroa

## URR. 13-AZA. 1

### ARIMEN GAUA

Xehetasun guztiak ale honetako 28-29. orrialdeetan.



## URR. 24-AZA. 14

### ERRIGORA

'Euskarari puzka' kanpaina martxan. Saski eskaerak: [errigora.eus](http://errigora.eus) atarian.

## URR. 25 (OSTIRALA)

### ELKARRETARATZEA

19:30 Euskal preso eta iheslarien giza eskubideen alde. Foruen Plaza.

## URR. 27 (IGANDEA)

### ZINEMA

19:00 'Femme'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## URR. 30 (ASTEAZKENA)

### IRAKURKETA KLUBA

19:00 'Maus: bizirik irtendako baten kontakizuna' (Art Spiegelman). Udal liburutegia.

## AZA. 3 (IGANDEA)

### ZINEMA

19:00 'Sala de profesores'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## AZA. 4 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

## AZA. 8 (OSTIRALA)

### ODOL ATERAKETAK

16:30-20:30 Txanda eskatzeko edo zalantzak argitzeko: 612 40 21 03. Luzaro ikastetxea.

## AZA. 9 (LARUNBATA)

### ZUMARDIA ONDARE BIZIA

Debanaturaren ekimenez: 10:00 Helduentzako paseo botanikoa. 11:30 Haurrentzako ingurumen heziketa saioa.

## AZA. 10 (IGANDEA)

### ZINEMA

19:00 'El clan del hierro'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

### IPIUIN KONTAKETA

17:30 Debako Kontalarien eskutik. Ispiluen gela.

## GOAZEN 50. URTEMUGA

Antzerki taldeak 50 urteotan taularatutako obra ezberdinen proiektzioak eta solasaldiak antolatu ditu. Gainera, bi astez kartel eta argazki zaharren erakusketa ere egongo da herriko denda eta saltokietan.

## AZA. 11 (ASTELEHENA)

### 'GERNIKA' (1982)

18:30 Kultur Elkarte.

## AZA. 12 (ASTEARTEA)

### 'PERNANDO BIZIRIK HAGO ORAINDIO' (1982)

18:30 Kultur Elkarte.

## AZA. 13 (ASTEAZKENA)

### 'KANIKA ZURI BELTZA' (2006)

18:30 Kultur Elkarte.

## AZA. 14 (OSTEGUNA)

### 'BADATOR' (2021)

18:30 Kultur Elkarte.

## AZA. 15 (OSTIRALA)

### PROIEKZIOA

18:30 Goazen 50. urtemugako dokumentalaren aurkezpena. Kultur Elkarte.

## AZA. 16 (LARUNBATA)

### GOAZEN URTEMUGA FESTA

12:30 Kalejira eta antzerki poteoa. 15:00 Goaz-en lagunen bazkaria. Ozio Bide.

## AZA. 17 (IGANDEA)

### ZINEMA

19:00 'El joven y el mar'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## AZA. 18 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

## AZA. 21 (OSTEGUNA)

### SANTA ZEZILIA BEZPERA

Xehetasun guztiak ale honetako 22. orrialdean.



## IKASTAROK

### KZgunea

Aurrez aurrekoak eta urrunekoak. Astelehenetik ostiralera (16:00-20:00). Informazioa: [kzgunea.eus](http://kzgunea.eus).

## DIRULAGUNTZAK

### Alokairua ordaintzeko dirulaguntza deialdia

Aurkezteko epea: azaroak 14. Oinarriak: [deba.eus](http://deba.eus).

## LEHIAKETAK

### XIX. Tene Mujika beka

Aurkezteko epea: abenduak 9. Oinarriak: [deba.eus](http://deba.eus).



### ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

### BURGOA

Urriak 28, 29, 30, 31 / Azaroak 15, 16, 17.

### ZALDUEGI

Azaroak 1, 2, 3, 11, 12, 13, 14.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

### DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01  
BURGOA 667 33 88 90

### Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI  
Urriak 26 / Azaroak 2

### BURGOA

Azaroak 9 eta 16



## Jarrai gaitzazu!



[berriketan.eus](http://berriketan.eus)  
Zuhatza Euskara Elkartea

### HURRENGO HITZORDUAK



[berriketan.eus/agenda](http://berriketan.eus/agenda)

## Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkartea	943 19 13 83	Lurraldeburu	900 30 03 40
Debako Udala	943 19 28 40	Correos	943 19 17 99
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Itziarko Botikina	687 75 67 21
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90
Kiroldegia	943 19 22 62	Gurutze Gorria	943 19 10 32
Euskotren	944 33 33 33	DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22



# Deba

## Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20  
20820 Deba, Gipuzkoa

[info@debaklinika.com](mailto:info@debaklinika.com)  
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra  
Kirurgia  
Inplanteak  
Ortodontzia tradizionala  
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)  
Haurren odontologia

\* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

# Uzuri

optika audio

**PILARIK GABEKO  
AUDIFONOAK  
PROBATU  
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,  
20820 Deba  
Tel: 943 19 21 92



RPS: 183/12

# Arteondo

## Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



## ASESORIA ARIN

M. Belen Arrue Lizarralde  
Abokatua

**Zestoa**  
Gesalaga kalea, 22 behea  
943 89 70 99

**Zumaia**  
P. Etxezarreta, 15 behea  
943 11 71 55

Lege zerga, kontabilitate, merkataritza eta lan aholkularitza  
Enpresak / Autonomoak  
Finken administrazioa, jabeen erkidegoak eta higiezin kudeaketa

[asesoriarin@asesoriarin.com](mailto:asesoriarin@asesoriarin.com)



**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

[sagarmina@sagarmina.com](mailto:sagarmina@sagarmina.com)  
[www.sagarmina.com](http://www.sagarmina.com)



## kutxabank



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)

## BA AL ZENEKIEN...

...Orange Productions ekoizpen-etxeak *Kike Turmix* punk-rock musikariaren bizitzari buruzko dokumentala sortu zuela 2005ean? Eta irudietan Deba agertzen dela?

Sortzez bilbotarra izan arren, Debarekin lotura estua izan zuen txikitatik Enrique Vitoriak (*Kike Turmix* ezizenez ezagunagoa). Debako danborradaren zuzendari izandako Isidro Vitoria *Miami*-ren semea eta Txema Vitoriaren anaia izateagatik ezagutzen zuten askok inguruotan, baina 80ko eta 90eko hamarkadetan punk-rock musikari gisa egindako ibilbideak nazioarteko ospea eman zion.

Musikaren hainbat eremutan aritu zen: *Kike Turmix* y los pasapures, N-634 eta *Pleasure Fuckers* taldeetako abeslaria izan zen, adibidez, baita disko jartzailea, *Safety Pin Records* zigilu diskografikoaren sortzailea, kontzertu-bira antolatzailea... ere. Ospe handia izan zuen, besteak beste, Eskandinaviako rock musikariaren artean ere, eta *Orange Productions* ekoizpen-etxeak bere bizitzari buruzko dokumentala kaleratu zuen 2005ean; alboko estekan duzue ikusgai (azpitituluk ditu ingelesez). Deban grabatutako irudiak agertzen dira bertan. Urriaren 17an bete zen bere heriotzaren 19. urteurrena.



Dokumentala ikusi:  
[labur.eus/turmixdokumentala](http://labur.eus/turmixdokumentala)

Argazkian: Joe Strummer *The Clash* musika taldeko abeslaria eta Enrique Vitoria, *Kike Turmix*.



**Erreserbatu zure  
bisita gidatua eta  
Tripon tziak menua!**

Azaroaren 8tik abenduaren 1era

**Menua 35€**

baz2 barne












www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197



*Hondartza ondoan  
Urte gustuan zabalik*

Nafarroa Plaza - Tel.: 943 192 576  
20820 DEBA



Sukalde eta etxe altzarien  
erakusketa izugarria  
3000m<sup>2</sup>

Itziaroko gaina

T.: 943 19 91 00

F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com  
www.mueblesendaneta.com



**ITURLAN, S.L.**

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tfno. Mugikorra: 635 717 732  
Tfno.-Fax: 943 192 553  
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Kolegiatu zkia.: 20001123

**Amaia & Esnaola**

ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar

943 20 72 17 | 660 42 28 08

amaia@esnaolaodontologia.com

**Mikel**  
ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO  
ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,  
20820 Deba

T. 943 191 774

M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27  
943 19 14 47  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3

943 192 057

20820 DEBA

*Calbeton*



**Agustín  
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ENGLISH  
SQUARE**



SCHOOL  
OF ENGLISH

**Ikasi  
ingeleza  
atzerrian**

Sokagin kalea 12, DEBA  
648 268 206

info@english-square.net



Zuhaitza **euskara elkarte**  
 miz-deba



Eman bultzada, indartu euskara

# Agerreko uzta euskarari puzka

urriak 24 - azaroak 14



Saskien balioaren %25 Nafarroa erdialde eta hegoaldeko (Agerreko) euskalgintzara bideratuko da

[errigora.eus](http://errigora.eus)



Saski beltza 55€



Saski berdea 65€ eko



Saski gorria 75€



Karta-jokoa +5€